

Agurtzane Intxaurraga

ANTZERKILARIA

Artea kalean

B

ulebarreko zuhaitz baten azpian ikusi nuen gizona. Kasualitateak eraman zuen zuhaitz hartara. Bidean jende multzoa egokitu eta berak ere zer egin berezirik ez zuenez, hantxe geratzea erabaki zuen.

Edozein hiriko bulebarra zen. Edozein hiri, herri edo auzoko zuhaitz bat ere bai. Nik ikusi nuen gizona, ordea, bakarra iruditu zitzaidan. Gizon hark puru handi bat zuen zintzilika ezpainenetan, kea zeriola etengabe, baina une horretan hori zen gutxien inporta zitzaiona berari. Zuhatzari lotuta, zapi gorritik zintzilika, hegan, zegoen neska hark lapurtua zion arreta osoa. Gizon haren sei zentzuak neska haren lanak eragiten zuen une magikoak erakarriak zituen. Ni ere hantxe nintzen, gizona ez bezala, neska hura ikusteko asmoz hurbildua bertara. Ikuskizuna hasita zegoen gizon hura hantxe zegoela konturatu nintzenerako. Orduan nora begiratu ez nekiela jarri nintzen. Neskaren eta gizonaren begiek bat egin zuten behin baino gehiagotan. Gizona urduri antzeman nuen. Eta pentsatu nuen: lehen aldia ote du halako bat ikusten duena? Ziurrenik bai... Aurreiritziak martxan jarrita esango nuke gizon hura era hartako ikuskizun zale baino futbol zale amorratua zela. Galtzako trabillan zintzilika zuen errealeko giltza zorroak eragindako iritzia zen nirea. Amaitu



DANI BLANCO

bitartean hantxe jarraitu zuen, irri inozoz, noiz-behinka era automatikoan, puruari eraginez.

Egun hartan gizon hark kristalezko neska harekin amets egingo zuela iruditu zitzaidan.

Kalean jarraituz, geroxeago, Igor Mitorajen *Artea kalean* eskultura sorta zoragarriak zeuden bidetik etxeratzea erabaki nuelako, egin nuen topo emakume talde harekin. Txundituta zeuden, txoratzen gorpu eder haiek ikusten. Lotsak gorrituta ere bai. Eseri eta luzez, beraiei begira irribarre egin nuen neuk ere. Gau hartan emakume haiek guztiek, ohe barruko beroak jota, kaleak bat-batean emandako opari zoragarriarekin loak hartuko zuten gozo.

Eta kalean beste mila gauza ere ikusten ditut egunero: zaratak, haserrealdiak, presak, gogo-txarrak, bozina soinuak, eskaleak, gizabanako bakartiak. Zoritxarrez horiek ikusten ditut batez ere eta neu ere beraietako bat bihurtzen naiz.

Goian aipatutakoak ikusi nahiko nituzke ordea, beste hauek baino gehiago. Zoriontsuagoak ziruditen.

Artea kalean. Zenbat hobeto biziko ginen gure eguneroko zereginak horrelako ezustekoz zipriztinduko balira.

Artea sozializatzearen aldeko apustuak sortzen dizkit gisa honetako pentsamenduak. ■

« Eseri eta luzez, beraiei begira

irribarre egin nuen neuk ere.

Gau hartan emakume haiek

guztiek, ohe barruko beroak

jota, kaleak bat-batean emandako

opari zoragarriarekin loak

hartuko zuten gozo

»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Guztiak ez dira berdinak. Hiltze oro ere ez. Puntako kirolari andanak ustekabeen uzten du mundua bere jardunean. Lan istripuak. Guztiak ez dira telebisatuak. Alda-

miotik erori, aszensoreetako hutsuneetatik jausi. Hauek ez dute izenik, zoritxarreko langileak ditugu. Gehiengo gutxitua. Antonio Puerta Sevillako futbolariaren hiltzeak bere ondorioak ekarri ditu. Kirolarien bihotza aztertuko duen SportChip izeneko protokoloa aurkeztu du SabioB-Bi laborategiak. Txuaren eta odolaren bidez, aztertu omen ditzake hamazazpi bat gen batera, tartean bereziki arritmia hilgarriak eragin dezakeena. Horrela, kirolari gaz-

Hildako

tetan ezagutzen dira joera genetikoak eta aurreikusi litezke bere arriskuak puntako esfortzuetan. Nago, eliteko jardunetatik at ez dugula test hori ezagutuko, maila lokal-tan prestakuntza fisikoa nolakoa den ikusita sinestezina baitzait minimoak betetzen ez diren lekutan horrelako sistematizazioa sozializatzea. Gehiengo gutxitua hemen ere. Ezina zait irudikatzea herri klubetan, fisiologorik ez dagoen eremutan, honetarako prestatua legokeen kardiorogorik ikustea aldageletako kide. Areago, honetaz kezkatuta arduratuko litzakeen zuzendaritzarik. Jakina, telebisatetik at ez dago mundurik, eta balego, informatiboetako istripuen saila betetzeko litzateke. ■